



Lehiaren
Euskal Agintaritza

Autoridad Vasca
de la Competencia

BIZKAIKO OSTALARITZAKO 2016-2017 URTEETARAKO HITZARMEN KOLEKTIBOARI BURUZKO TXOSTENA

178. zenbakiko AVC proiektua -PROM- (2016)

Aurkibidea:

I.- Txostenaren xedea	2
II.- Lehiaren balizko mugaketa	3
III.- Ondorioak.....	6
IV.- Gomendioa	6

Osoko bilkura:

María Pilar Canedo Arrillaga andrea, lehendakaria

Natividad Goñi Urriza andrea, kontseilukidea

Rafael Iturriaga Nieva jauna, kontseilukidea

Idazkaria: Alfonso Gómez Fernández jauna

1. Lehiaren Euskal Kontseiluaren Osoko Bilkurak, 2016ko maiatzaren 25ean egindako bileran, goian adierazitako kideak bertaratuta, txosten hau ematea erabaki du, "Bizkaidendak" - Bizkaiko Merkatar, Ostalari eta Zerbitzu Enpresen Elkarteen Federazioak (hemendik aurrera, BIZKAIDENDAK) egin duen kontsultari erantzunez, Bizkaiko Ostalaritzako 2016-2017 urteetarako Hitzarmen Kolektiboan (hemendik aurrera, Hitzarmena) ezarritako prestakuntza-plusa deituaren aplikazioa dela-eta.

2. Lehiaren Euskal Agintaritzari buruzko Legearen 2. eta 3. artikuluen arabera, haren helburua da merkatuko lehia askearen eta gardentasunaren baldintzak sustatu, bermatu eta hobetzea, Euskal Autonomia Erkidegoan egiten diren jarduera ekonomikoei dagokienez, eta, horretarako, lehiaren inguruko azterlanak eta ikerlanak sustatu eta egiten ditu, bai eta sektoreei buruzko txosten orokorrak ere, eta, horietan, benetako lehia egoteko konpondu edo hobetu beharrekoak hobetzen laguntzeko proposamenak jasotzen ditu¹.

¹ EAEko 1/2012 Legea, otsailaren 2koa, Lehiaren Euskal Agintaritzari buruzkoa (2012ko otsailaren 9ko EHAA, 29. zk.).



I.- Txostenaren xedea

3. 2016ko otsailaren 25ean Lehiaren Euskal Agintaritzaren erregistroan jaso zen BIZKAIDENDAKeo lehendakariak egindako kontsulta bat, aipatutako hitzarmenaren 20. artikulua aplikazioa dela-eta Bizkaiko Ostalaritza Elkarteak eta hitzarmenaren batzorde paritarioak hartutako jokabideari buruzkoa.

Goian aipatutako manuak honako hau dio:

20. artikulua. —Prestakuntza plusa

Sektore moderno eta lehiakorra izateko, beharrezkoa da prestakuntza egoki eta eguneratua duten enpresari zein langileak izatea. Horrenbestez, kalitatezko prestakuntza jasotzea bermatzen duten eruedetan aktiboki parte hartzea ezinbesteko apustua da sektore lehiakor bat garatu eta mantentzeko zein sektoreko enpleguak egonkorrak eta kalitatezkoak izatea bermatzeko.

Horregatik, hitzarmeneko sinatzaileek adosten dute langileei ordainsari izaeradun prestakuntzako plus konpentsatzailea ordaindu beharko dietela honako enpresa hauek –hitzarmena indarrean den bitartean urteko 15 ordainsaritan ordainduko diren 25 euroko plusak izango dira–:

1.- **Sektorearen garapen hezigarrian aktiboki parte hartzen duen enpresa elkarte adierazgarri bateko kide izatea egiaztatzen ez duten enpresak.** Gutxienez sektoreko % 15 ordezkatzan dituzten enpresa elkarteak hartuko dira adierazgarritzat eta hitzarmen honen eraginpean dauden langileentzako prestakuntza planak sustatu beharko dituzte, betiere lan merkatuaren beharretara egokituta eta enpresen lehiakortasuna bultzatzea helburu. Era berean, prestakuntzak langileen garapen pertsonalerako zein sustapen profesionalerako aukerak ere kontuan izan beharko ditu, langileei lanbide ezberdinak modu kualifikatuan egiteko gaitasunak eskainiz.

2.- **Etengabeko prestakuntzako plan indibidualak garatzea egiaztatzen ez duten enpresak.**

3.- Sektoreko sindikatu adierazgarriek bultzatutako **ostalaritzako etengabeko prestakuntzako taldeko plangintzetan** parte hartzea egiaztatzen ez duten enpresak.

Betebehar honetatik salbuetsita geratzeko honako egiaztapen aukera hauek ezartzen dira:

1) Ostalaritzako prestakuntza espezifikoa parte hartzen duen edo berau bultzatzen duen sektoreko enpresa elkarte adierazgarri batek emandako ziurtagiria, bertako kide izatea egiaztatzen duena. Batzorde paritarioaren oniritzia jaso beharko du ziurtagiriak.

2) Enpresak emandako ziurtagiriak etengabeko prestakuntzako plan indibidualak garatzen dituela egiaztatuz. Batzorde paritarioaren oniritzia jaso beharko dute ziurtagiriok.

Ziurtagiriok urtebeteko balioa izango dute eta automatikoki berritu ahal izango dira ezarritako baldintzak betetzen jarraituz gero; aldiz, edozein unetan gera daitezke bertan behera baldintzok betetzeari utziz gero.



3) Erakunde sindikal batek emandako ziurtagiria enpresak sindikatuek bultzatutako ostalaritzako etengabeko prestakuntzako taldeko plangintzaren batean parte hartzen duela egiaztatuz. Batzorde paritarioaren oniritzia jaso beharko du ziurtagiriak.

Edozein kasutan, hitzarmen honen eraginpean dauden langileek enpresak aurkeztutako ziurtagirien indarraldi eta baliagarritasunari buruzko informazioa eskatu ahal izango diote batzorde paritarioari prestakuntza plusa erreklamatzeko arrazoiak dituztela uste badute.

4. BIZKAIDENDAKek, bere kontsultari erantsita, Bizkaiko Ostalaritza Elkarteak ostalaritzako enpresei igortzen ari zaien gutun bat aurkeztu du. Gutun horretan enpresei gogora ekartzen zaie elkarteko kide direnez gero salbuesita daudela Hitzarmenaren 20. artikuluan araututako prestakuntza-plusa langileei ordaindu beharretik. Salbuespen hori egin omen liteke, aipatutako elkarteak “betetzen dituelako artikuluko horretan ezarritako baldintzak, salbuespena justifikatzen duten ziurtagiriak eman ahal izateko”.

BIZKAIDENDAKek ohartarazi du, gainera, Hitzarmenaren batzorde paritarioak Bizkaiko Ostalaritza Elkarteak bera baino ez duela homologatu prestakuntza-zentro gisa salbuespena justifikatu ahal izateko, eta horrenbestez “lehiaren aurkako bigarren ondorio bat” sortu dela.

5. Lehiaren Euskal Agintaritzak aztertu behar du ea manua eta beraren aplikazioa zenbateraino ari diren lehiaren murrizketak sortzen hitzarmenaren eraginpeko merkatuan.

II.- Lehiaren balizko mugaketa

6. Hitzarmenaren 20. artikulua ageriko xedetzat dauka hitzarmena aplikatu behar den pertsona- eta lurralde-eremuetako langileei prestakuntza egokia eta etenik gabe eguneratua ematen laguntzea.

Xede horri begira, zigor ekonomikoa ezartzen du hura lortzen laguntzen ez duten enpresentzat, eta soldata-haborokina, berriz, enpresak horrelako prestakuntzarik ematen ez dien langileentzat.

Hala, enpresek baliabideak jarriko lituzkete langileei prestakuntza egokia eta etenik gabe eguneratua emateko, edo, prestakuntzarik ezean, langileei ordaina emango liekete.

Hitzarmenak aukera ematen du enpresa-elkarte edo sindikatu-erakundeek antolatutako baterako prestakuntza-planetan parte hartzeko edo bestela langileentzat banakako planak kontratatzeko.



7. Lehiaren ikuspegitik ez dago eragozpenik langileen prestakuntza horrela sustatzeko. Alderantziz. Helburu horrek enpresen lehiakortasuna eta langile zein erabiltzaileen ongizatea areagotzen laguntzen du.

Lehiaren Euskal Agintaritzak aztertu behar duen kontua da ea nola aurreikusten edo gauzatzen den langileek prestakuntza egokia eta etenik gabe eguneratua jasoko dutela bermatzeko modua.

8. Lehenengo eta behin, manuak aukera ematen du soilik hiru entitatek eman dezaten egindako prestakuntzaren ziurtagiria: “sektoreko enpresa elkarte adierazgarri batek”, “bertako kide izatea egiaztatzen duena”; enpresak garatutako “etengabeko prestakuntzako plan indibidual batek”; edo “erakunde sindikal batek”, enpresak etengabeko prestakuntzako plan elkarturen batean parte hartzen duela egiaztatzen duena.

Horren ildotik kontuan hartu behar da sistema horrek prestakuntza-planak eskaintzeko aukerarik gabe uzten dituela aipatutako entitateak izan ezik beste guztiak. Esaterako, sektorearen ordezkagarritzat hartu ezin diren enpresa-elkarteak (tartean, kontsulta hau egin duena), izan ere, arauaren testuak dioenez, frogatu egin behar baita elkarte egokiko kide izatea; edo eredu itxi horretatik kanpo enpresetako profesionalentzat prestakuntza-ikastaro egokiak egiten dituen beste edozein entitate.

Bestalde, araua idatzita dagoen moduan, gerta liteke enpresek prestakuntza-planetan parte hartze hutsak bide ematea enpresak langileari diru kopururik ordaindu beharrik ez izateko, egiaztatu gabe egon arren langileak inolako prestakuntzarik jaso ote duen. Horrela, aurreikusitako sistemak, langileen prestakuntza bermatu beharrean, aukera ematen du zenbait entitatek bakarrik eman ditzaten prestakuntza-ikastaroak; hain zuzen, aukera hori aitortzen zaien entitateek bakarrik.

9. Hitzarmenaren 20. artikulua dioenez, bestalde, batzorde paritarioak “oniritzia” eman behar dio edozein prestakuntza motari, halako moldez non batzordeak soilik erabaki baitezake ziurtatutako prestakuntzak Hitzarmenean eskatutako baldintzak betetzen dituela.

Hitzarmenaren azken xedapenetatik hirugarrenak batzorde paritarioa eratzen du. “Patronaleko hiru kidek eta gizarte erakundeen beste hiruk osatuko dute, bat ELAko ordezkaria, beste bat UGTkoa eta azkena CCOOkoa. Horrenbestez, honako hitzarmen kolektiboaren negoziazio mahaia eratu zenean indarrean zen ordezkagarritasuna bere horretan mantentzen dute hitzarmenaren sinatzaileek”.

Era horretara batzorde paritarioko kideen esku dago erabakitzea langileei prestakuntza egokia eta etengabea eskaintzeko ikastaroak antolatzen eta



ematen dituzten enpresa eta entitateetatik zeintzuk diren baliozkoak Hitzarmenaren ondorioetarako.

10. Aurrekarien azalpenean esan den moduan, BIZKAIDENDAKek, bere kontsultari erantsita, Bizkaiko Ostalaritza Elkartea ostalaritzako enpresei igortzen ari zaien gutun bat aurkeztu du. Gutun horretan enpresei gogora ekartzen zaie elkarteko kide direnez gero salbuetsita daudela Hitzarmenaren 20. artikuluan araututako prestakuntza-plusa langileei ordaindu beharretik. Salbuespen hori egin omen liteke, aipatutako elkarteak “betetzen dituelako artikulua horretan ezarritako baldintzak, salbuespena justifikatzen duten ziurtagiriak eman ahal izateko”.

Aztertzen ari garen manuaren erabilera desegokiaren frogara litzateke salbuespen hori. Izan ere, langileek banaka prestakuntza-programetan parte hartzen duten ala ez alde batera utzita, salbuespen horrek adieraziko luke elkarteko kidea izatea nahikoa dela manuak ezarritako onura eskuratzeko.

BIZKAIDENDAKek ohartarazi du, gainera, Hitzarmenaren batzorde paritarioak Bizkaiko Ostalaritza Elkartea bera baino ez duela homologatu prestakuntza-zentro gisa salbuespena justifikatu ahal izateko, eta horrenbestez “lehiaren aurkako bigarren ondorio bat” sortu dela. Jokabide hori ere arauaren xedearan kontrakoa litzateke, eta prestakuntza-jardueren merkatuan sartzeko oztopoa jarriko lieke ostalaritza-sektoreko langileei.

11. Lehiaren Babesari buruzko Legearen 1. artikulua debekatu egiten ditu merkatu nazional osoan edo haren parte batean lehia eragozteko, murrizteko edo faltsutzea helburu duten edo hori eragiten duten edo eragin dezaketen hitzarmen, erabaki edo gomendio kolektibo guztiak, edo jardunbide hitzartu edo ohartuki paralelo guztiak².

Hitzarmenaren 20. artikulua hitzarmenaren batzorde paritarioari ematen dion ahalmenak, oniritzia ematekoak, Hitzarmenean eskatutako edukia duten prestakuntza-ikastaroak antolatzen eta ematen dituzten enpresa eta entitateen arteko lehia eragotzi, murriztu edo faltsutzea eragin dezake.

² 15/2007 Legea, uztailaren 3koa, Lehiaren Babesari buruzkoa (2007ko uztailaren 4ko BOE, 159. zk.), gero lege hauek aldatua: abenduaren 22ko 39/2010 Legeak (BOE-A-2010-19703), martxoaren 4ko 2/2011 Legeak (BOE-A-2011-4117) eta ekainaren 4ko 3/2013 Legeak (BOE-A-2013-5940). Testu finkatua <https://www.boe.es/buscar/act.php?id=BOE-A-2007-12946>.



12. Hitzarmenak batzorde paritarioari egozten dizkion eginkizunetako bat da, goian aipatutako azken xedapenaren arabera, hitzarmenaren indarraldian hura egokitzeko edo, hala behar denean, aldatzeko eginkizunak betetzea.

III.- Ondorioak

LEHENENGOA.- Hitzarmenaren 20. artikularen testuak bermatu egin behar du langileek benetan jasoko dutela proposatutako neurria justifikatzen duen prestakuntza, edo, horrelakorik ezean, hitzartutako soldata-plusa jasoko dutela. Manua halako moldez idatzi behar da non argi geratuko baita edozein erakundetako kide izate hutsak berez ez duela balio manuaren xedea betetzeko, hau da, langileen prestakuntza bermatzeko.

BIGARRENA.- Manu horrek bermatu egin behar du, gainera, aipatutako prestakuntza emateko aukera ez dela sektoreko elkarte ordezkagarrientzat edo sindikatuentzat bakarrik izango, aitzitik, arauaren xederako balio duten ikastaroak eskaintzen dituen edozeinek izango duela aukera hori.

IV.- Gomendioa

Hitzarmenaren batzorde paritarioak, Hitzarmenaren indarraldian Hitzarmena egokitzeko edo aldatzeko bere eginkizunak betez, Bizkaiko Ostalaritzako 2016-2017 urteetarako Hitzarmen Kolektiboaren 20. artikulua aldatzeko prozesua hasi behar du, prestakuntza ematen duten enpresen edota zentroen artean lehiarako desberdintasunik izan ez dadin eta enpresek ez dezaten artikulua hori oker baliatu, soldatetan aurrezteko, langileen prestakuntzarako benetako ekarpenik egin gabe.

LEHENDAKARIA

MARIA PILAR CANEDO ARRILLAGA

IDAZKARIA

ALFONSO GÓMEZ FERNÁNDEZ

KONTSEILUKIDEA

NATIVIDAD GOÑI URRIZA

KONTSEILUKIDEA

RAFAEL ITURRIAGA NIEVA